



Senperen, 2015eko otsailaren 9an

Saio antolatzaile eta kultur eragile agurgarri,  
Adixkide

Bertsularien Lagunak elkarteak eta Euskal Kultur Erakundeak partaidetzan, bertsuzaletasunaren garapena sustatzeko asmoz, bertsu saioak antolatzeko laguntza dispositibo bat plantan eman dute.

Dispositibo horri esker, bertsu saio bat antolatu nahi dutenei, diru laguntza bat proposatua zaie, bertsularien ordainketa gastuei aurre egin ahal izateko. Saioan parte hartuko duen bertsulari bakoitzeko, 100 €-ko diru kopurua emana izanen da. Diru laguntza, gehienez, 300 €-koa izanen da. Hauek dira diru laguntza lortzeko baldintzak :

- Antolatzen den saioan, bertsula izan behar da protagonista (bertsu bazkari-afari, bertsu jaialdi, bertsu trama, edo bertsula erdigunean duen beste edozein saio). Beste karia batendako antolatu ekimenetan, bertsulariek bizpahiru bertsu kantatuko duten saioak ez dira lagunduko.
- Bertsulariek jaso behar duten gutxieneko kopurua, diru laguntzaren heinekoa izan behar da (100 € bertsularika edo 300 € orotara diru laguntza hein horretakoa izan bada). Antolatzaileak, hala nahi izanez geroz, diru laguntza baino kopuru handiagoa eman diezaieke bertsulariei, baina sekula ez gutiago.
- Saioan parte hartuko duen bertsulari batek bederen Lapurdi, Baxe Nabarre ala Xiberokoa izan behar du.
- Bertsulariek, saioaren bukaeran, antolatzailearengandik jaso duten diru saria zehazten duen ordainagiri bat izenpetu beharko dute. Ordainagiria Bertsularien Lagunak elkarteari helarazi beharko zaio saioaren ondotik.

Diru laguntza eskaera saioa antolatu baino 15 egun lehenago helarazi beharko zaito Bertsularien Lagunak elkarteari. Epe horretatik kanpo heldu diren eskaerei ez zaie erantzungo.

Diru laguntza eskuratu duten erakundeek, bertsu saioaren komunikazio euskarrietan, Bertsularien Lagunak elkartearen eta EKE-ren logoa erantsi beharko dute, saioa bi erakundeen laguntzarekin antolatzen dela jakinaraziz.

Espero dugu laguntza dispositiboa, gure hiru lurraldeetan bertszuzaletasuna garatzeko eta sustatzeko baliagarria izanen dela.

Agur bero bat



Joana Itzaina  
Bertsularien Lagunak elkarteko lehendakaria  
"Larraldea" Amotze auzoa – 64310 Senpere  
T.: 0033 (0) 5 59 54 15 04  
[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)  
[www.bertsoa.com](http://www.bertsoa.com)



Pantxoa Etchegoin  
Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria  
Lota Jauregia – 64480 Uztaritze  
T.: 0033 (0)5 59 93 25 25  
[www.eke.eus](http://www.eke.eus)